



## **PUNTAIK PUNTA. Debagoieneko bidezidorren jaialdia. Ekainak 15, 16 eta 17.**

Debagoiena eskualdeak naturan ibiltzeko eta naturaz gozatzeko inguru paregabeak ditu, Debagoieneko bidezidorren sare zabala du, seinalizatutako eta homologatutako 23 PR (295 km.), 3 SL, 2 ibilbide irisgarri eta Debagoienetik 6 GR igarotzen baitira (Ignaziotar Bidea, Gipuzkoako bira..). Gainera, Vasco-Navarro bide berdeak eskualde osoa zeharkatzen du.

Aldi berean, bidezidor hauetako batzuk Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren barnean daude eta Oñati-Arrikruz kobetan lur azpitik ibilbideak egiteko aukera dago.

Ekainaren 15etik 17ra izango da PUNTAIK PUNTA, Debagoieneko bidezidorren jaialdiaren hirugarren edizioa, Euskal Herriko senderismoko lehen jaialdia. Aretxabaleta izanik gune zentrala gainontzeko herrietan ere mendi ibilbide gidatuak eskainiko dira.

Debagoienak senderismoaren eskualdea izan nahi du; natura turismoan erreferente. Ekainaren 15etik 17ra Debagoiena senderismoaren eskualdea bihurtuko da. Aldi berean, eskualdeko eskaintza turistikoa zabalduko da ohizko garaietatik kanpo.

Senderismoa aukera paregabea da naturara, ondarrera eta inguruaren ezagupenera hurbiltzeko paisaiatz gozatuz... kirola eginez.... ondare historiko-artistikoa, etnografikoa ezagutuz... **OSASUNA, KIROLA, TURISMOA** uztartzen dira jaialdi honetan.

### **Senderismoa**

zailtasun tekniko gehiegirik gabeko bideak oinez, ibiltzen egitean datza  
jarduera fisikoa, kirola egitea naturan.

herrietako nekazal gune eta elizateetara hurbiltzeko aukera paregabea...

ondare historikora, etnografikora hurbiltzeko aproposa...

baliabide turistikoa produktu turistiko bihurtuko duguna

PUNTAIK PUNTA, Debagoieneko bidezidorren jaialdian bidezidor gidatuen eskaintza zabala izango da, distantzia eta zailtasun desberdinetakoak, adin desberdinetara egokituak Debagoieneko herrietan.

Ekainaren 15ean goizean izango da lehen ibilbidea Aretxabaletatik Urkulu Urtegira, Aizkorri-Aratz Parke Naturalera eta ondoren bi egunetan beste hainbat mendi ibilaldi eskaintzen dira; sendabelarrak ezagutzeko ibilbideak, izarrak ikusteko ibilbidea, Uretsen ibilbidea edo Debagoieneko Leihoa den Aitzulora ibilbidea. Edo Elgetako ibilbide historiako Intxortara, Arrasatetik, Eskoriatzatik eta Leintz Gatzagatik Aretxabaletara oinez hurbiltzeko aukera ere eskaintzen da. Ibilaldi luzea ere izango da Aretxabaletako X. mendi martxa, ekainaren 17an, 25 Km. luzera duena.

Bidezidor gidatuen eskaintza ARETXABALETAn antolatuko diren beste jarduera batzuekin osatuko da:

### **KULTUR JARDUERAK, BISITA GIDATUAK, MUSIKA EMANALDIAK, KALE ANIMAZIOA, SENDERISMO AZOKA**

#### **SENDERISMOko azoka.**

Senderismoaren inguruan ezagupenak, esperientziak trukatzeko foroa izan nahi du, senderismoaren lanketa produktu turistiko moduan bultzatuz.

Arloko profesionalak erabiltzaileekin harremanetan jartzeko gunea izatea du helburu. Senderismoarekin harremanetan dauden argitaletxeak, erakunde publikoak,... hartuko dute parte. Gonbidatu berezia Vall d´Aran eskualdea izango da.

#### **KIROL JARDUERAK NATURAN.**

Rokodromoa, oreka tailerrak

#### **KULTUR JARDUERAK, BISITA GIDATUAK**

Debagoieneko ondarea ezagutzeko bisita gidatuen ordutegi zabala: adibidez,..... Aretxabaleta ezagutu: Bainuetxeen herria edo Oñati; muino ugarien herria.

Argazkilaritza, Kartografia eta Orientazio tailerrak...

#### **HAURRENTZAKO EMANALDIAK**

Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Zirko tailerra

#### **MUSIKA EMANALDIAK.**

Kepa Junkera & Sorginak, Skaiketan, Nogen, Screammers & Sinners, Krisis



PUNTAIK PUNTA Debagoieneko bidezidorren jaialdiarekin arlo desberdinak harremanetan jartzen dira: turismoa, kultura, kirola,... eskaintza integrala osatuz; Debagoiena eskualdearen irudia Euskal Herrian zehar zabalduz eta aldi berean, eskualdeko turismo eta kultur eskaintza zabalduz.

Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Saila da jaialdiaren antolatzailea, Aretxabaletako Udalarekin batera eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo eta Kirolak Sailetakoa eta Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Osasun Sailaren laguntza ere jasoko da. Ez ahaztu ere eskualdeko hainbat taldeen laguntza, esaterako, Aretxabaletako Murruxiko eta Zeraia Mendi Elkartea, Kantsatzeke Mendi Taldea..... Areantzako Kanpai Joleak, Arantzazu Parketxea,.. Eroski....

Gogoratu hainbat tailer, mendi ibilbideetan parte hartzeko aurrez izena eman behar dela. Ondorengo web orrialdean jasotzen da informazio guztia: <http://puntaikpunta.turismodebagoiena.com/>

Informazio gehiago:

Debagoieneko Mankomunitatea. Turismo. 943 79 64 63  
[puntaikpunta@debagoiena.eus](mailto:puntaikpunta@debagoiena.eus) [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).  
<http://puntaikpunta.turismodebagoiena.com/>  
[www.turismodebagoiena.eus](http://www.turismodebagoiena.eus)



EKAINAK 15, 16, 17 JUNIO



ARETXABALETA eta DEBAGOIENAN...

bidezidor gidatuak,  
senderismo azoka, boulder gunea... musika, kontzertuak  
(Kepa Junkera & Sorginak, Screamer & Sinners, Nogen,  
Skalketan, Krisis...)

rutas de senderismo guztiak,  
feria de senderismo, zona de boulder...  
musica, conciertos

Informazio gehiago 943796463 [puntaikpunta@debagoiena.eus](mailto:puntaikpunta@debagoiena.eus) [www.turismodebagoiena.eus](http://www.turismodebagoiena.eus)  
Más información <http://puntaikpunta.turismodebagoiena.com/>

